



# Unibertsitatean Sartzeko Ebaluazioa (USEa) Maiz egiten diren galderak

Nafarroako Unibertsitate Publikoa

## Aurkibidea

<b>Ezaugarri orokorrak .....</b>	<b>3</b>
Berez, zer da proba?.....	3
Zein azterketa egin behar dira nahitaezko fasean? .....	3
Egin dezaket atzerriko bigarren hizkuntzaren azterketa (Ingelesa, Frantsesa edo Alemana)? .....	3
Zein azterketa egin behar dituzu borondatezko fasean? Zertarako da? .....	3
kasketetan onartua izateko zer nota behar dut unibertsitateko gradu bakoitzean? .....	4
Onartua izateko behar dudan nota berbera izanen da unibertsitate guztietan? .....	4
Batxilergoarekin eta nahitaezko fasearekin 12 puntu lortzen ahal ditut? .....	5
Nahitaezko faseko irakasgaia ponderatzeko, derrigorrez aurkeztu behar dut borondatezko fasera ere? .....	5
Noiz ematen da USEa gainditutzat? .....	5
Lanbide Heziketako ikasketak eginda, ba al dut USEra aurkezterik .....	5
Non matrikulatuko naiz USEan? .....	5
Zer dokumentazio eraman behar dut USEra? .....	5
Zer gertatzen da ordu tarte berean bi azterketa egin behar baditut? .....	7
<b>USEko NOTAK .....</b>	<b>7</b>
Nola emanen dizkirate notak? .....	7
Badut jarri dizkidaten notak erreklamatzeko aukerarik? Jaisten ahal didate nota? .....	7
Ba al dut zuzendutako azterketa ikusteko eskubiderik? .....	7
Noiz arte balio dute USEko notek? .....	7

**KALIFIKAZIOA HOBETZEA ..... 7**

USEa gainditu eta berriro aurkezten banaiz, proba osoa egin behar dut berriro? .....7

USEa gainditu dut deialdi arruntean, eta deialdi berezira aurkeztuko naiz nota igotzeko .....7

Borondatezko fasea berriz egiten badut, aukera dut lehenbizikoan egin ez nituen beste irakasgai batzuk egiteko? .....8

Aurreko deialdietan nahitaezko fasean egin nuen modalitateko enborreko irakasgaia egiten ahal dut orain borondatezko fasean?.....8

Borondatezko fasean Ingelesa irakasgaiaren azterketa egiten ahal dut?.....8

Borondatezko fasera aurkezten banaiz eta joan den urteko borondatezko faseko irakasgai bat gaindituta badaukat, atera nuen nota gordeko didate? .....8

## Ezaugarri orokorrak

### Berez, zer da proba?

Unibertsitateko ikasketak egiten hasteko, Batxilergoko titulua edo parekoa duten ikasleek Batxilergotik Unibertsitatean Sartzeko Ebaluazioa (USEa) gainditu behar dute. Probak bi atal ditu: nahitaezkoa eta borondatezkoa (bigarrenak nota igotzeko balio du). Batxilergoko 2. ikasmilako irakasgaiak dira.

Goi Mailako Heziketa Zikloko ikasleek ere aukera dute probara aurkezteko, baina soilik borondatezko fasera.

### Zein azterketa egin behar dira nahitaezko fasean?

Arlo hauetan:

- Enborreko hiru irakasgai orokor (batxilergo mota guztietan egin beharrekoak)
  - [Gaztelania eta Literatura II](#)
  - [Espainiako Historia](#)
  - Atzerriko Hizkuntza: [Ingelesa](#), [Frantsesa](#) edo [Alemana](#)
- A eta D ereduak
  - Euskara eta Literatura II ([A eredu](#), [D eredu](#))
- Ikasleak egindako modalitateari dagokion enborreko irakasgai orokor bat
  - Zientziak: [Matematika II](#) (P)
  - Giza eta Gizarte Zientziak: [Latina II](#) edo [Gizarte Zientziei aplikatutako Matematika](#) (P)
  - Arteak: [Artearen Oinarriak II](#) (P)

Nahitaezko fasearen nota azterketako irakasgaien batezbesteko aritmetikoa da. 4 bat ateratzea aski da gainditzeko, baldin eta gutxienez 5 bat lortzen baduzu Batxilergoko batez besteko notaren % 60 eta USEko nahitaezko faseko kalifikazioaren % 40 gehituta.

(P) Modalitateko enborreko irakasgai orokorra ponderatu daiteke, zer gradutara sartu nahi den.

Nahitaezko fasea ez da iraungitzen.

### Egin dezaket atzerriko bigarren hizkuntzaren azterketa (Ingelesa, Frantsesa edo Alemana)?

USEra aurkezten zaren lehenbizikoan azterketa hauek egiteko aukera izanen duzu:

- ✓ Nahitaezko fasea: Batxilergoko 2. ikasmilan egin dituzun irakasgaiak.
- ✓ Borondatezko fasea: fase orokorrean egin ez dituzun irakasgaiak sartzen dira, berdin Batxilergoan egin dituzun ala ez.

Nahitaezkoa fasea gainditu ondoren berriz aurkezten bazara, izan nahitaezko fasean zein borondatezkoan, aukera izanen duzu atzerriko edozein hizkuntzaren azterketa egiteko, baina kontuan hartu beharko duzu bi faseetara aurkezten bazara bi hizkuntza desberdin egin behar dituzula.

### Zein azterketa egin behar dituzu borondatezko fasean? Zertarako da?

NUPen gehienez ere 3 irakasgaitako azterketa egiteko aukera duzu.

Gainditutako irakasgaien notak ponderatzeko modukoak dira, sarbidea zein gradutarako eskatzen den. Kalifikazioa 4 puntu handiagoa izan liteke gehienez ere.

Unibertsitate bakoitzak [bere ponderazioak](#) ezartzen ditu graduko ikasketetarako. NUPen ponderazioa egiteko bider 0,1 edo 0,2 egiten da.

- ✓ LOMCE Batxilergoko ikasleak badira eta USEa lehenbiziko aldiz egiten badute, hauek dituzte aukeran:
  - edozein modalitatetako enborreko irakasgai orokorrak, nahitaezko fasean egin ez dituztenak
  - edozein modalitatetako enborreko aukerako irakasgaiak (Batxilergoan egindakoak edo ez)
  - atzerriko hizkuntza bat: Frantsesa, Ingelesa edo Alemana, nahitaezko fasean egin duzuna ez den beste hizkuntza bakar bat, berdin Batxilergoan egin dituzun ala ez.
  
- ✓ LOMCEko Batxilergokoak badira eta berriz aurkezten badira, nahitaezko fasea gainditu ondoren aukera izanen dute borondatezko fasean hauek egiteko:
  - edozein modalitatetako enborreko aukerako irakasgaiak
  - edozein modalitatetako enborreko irakasgai orokorrak
  - USEak aukeran dituen hizkuntzetako bat
  
- ✓ Heziketa Zikloetako ikasleek aukera dute azterketa hauek egiteko:
  - enborreko aukerako irakasgaiak
  - enborreko irakasgai orokorrak, eta USEak aukeran ematen dituen hizkuntzetako bakar bat.

Fase horrek hura gainditu eta hurrengo bi ikasturteetan balioko du unibertsitatean sartzeko.

### kasketetan onartua izateko zer nota behar dut unibertsitateko gradu bakoitzean?

Batxilergoko zure notak, nahitaezko faseko nota eta borondatezko faseko irakasgaien notak hartuko dira kontuan. Formula honekin kalkulatzen da:

$$\text{BATXILERGOKO NOTA} * 0,6 + \text{NAHITAEZKO FASEKO NOTA} * 0,4 + a * M1 + b * M2$$

- M1 eta M2 ponderazioa aplikatu ondoren unibertsitatean onartua izateko nota onena ematen duten bi ariketen kalifikazioak dira. NUPen irakasgai hauek ponderatzen ahal dira: modalitateko enborreko irakasgai orokorrak (nahitaezko eta borondatezko faseetakoak), borondatezko faseko enborreko aukerakoak eta borondatezko fasean gainditutako atzerriko hizkuntza. Puntuazio horiek balioa izanen dute Unibertsitatean sartzeko probetarako, probak gainditu eta ondorengo bi ikasturteetan.
- a eta b ponderazio-parametroak dira, eta 0,1eko edo 0,2ko balioa dute.

Formula hori aplikatuta gehienez ere 14 puntu eskuratzeko aukera izanen duzu.

Ikusten duzunez, Batxilergoko notak % 60 balioko du, eta nahitaezko fasekoak % 40.

Posible da nahitaezko fasean egin duzun azterketetako bat ponderatzea (zure batxilergoaren enborreko irakasgai orokor bat), betiere horretan 5eko nota edo altuagoa lortu baduzu, eta, beraz, borondatezko fasera aurkeztu gabe gehienez ere 12 puntu lortzen ahalko dituzu Nafarroako Unibertsitate Publikora sartzeko.

### Onartua izateko behar dudan nota berbera izanen da unibertsitate guztietan?

Ez, baliteke ez izatea nota bera. Unibertsitate bakoitzak ezartzen ditu ponderazio parametroen balioak, eta, beraz, nota aldatzen ahal da unibertsitate batetik bestera.

### Batxilergoarekin eta nahitaezko fasearekin 12 puntu lortzen ahal ditut?

Nahitaezko fasearekin eta batxilergoko batezbestekoarekin 12 puntu arte lortzen ahal dituzu, fase horretako modalitateko enborreko irakasgai orokorra ponderatu daitekeelako, zer gradutara sartu nahi den, eta betiere irakasgai horretan 5eko nota edo altuagoa lortzen bada eta nahitaezko fasea gainditu bada.

### Nahitaezko faseko irakasgaia ponderatzeko, derrigorrez aurkeztu behar dut borondatezko fasera ere?

Ez, ez da beharrezkoa.

### Noiz ematen da USEa gainditutzat?

Batezbesteko ponderatuaren emaitza 5eko nota edo altuagoa denean –% 60 batxilergoko batez besteko nota eta % 40 nahitaezko faseko kalifikazioa, betiere 4ko gutxieneko nota lortu bada nahitaezko fasean. Gutxieneko nota hori derrigorrezko fasea osatzen duten irakasgai guztien batez besteko notari dagokio, eta ez da beharrezkoa horietako bakoitzean 4 puntuko kalifikazioa lortzea.

Batxilergoko nota x 0,6 + nahitaezko faseko nota x 0,4

### Lanbide Heziketako ikasketak eginda, ba al dut USEra aurkezterik

Bai, horrek unibertsitatean sartzeko nota gehienez lau punturaino hobetzeko ematen dizulako bidea. Gehienez ere 3 irakasgaitako azterketak egiteko aukera duzu. Hiru irakasgairen azterketa egin dezakezu, Batxilergoan irakasgaia egina izan edo ez: modalitateko enborreko edozein irakasgai orokor (edozein batxilergotakoa), enborreko aukerako edozein irakasgai (edozein batxilergotakoa), eta borondatezko fasean eskaintzen den hizkuntzetako bat.

Ikasketetan onartua izateko nota formula honekin kalkulatu da, eta hiru zifra dezimalekin adierazi, hurbileneko milarenarekin biribilduta.

PRESTAKUNTZA ZIKLOKO BATEZ BESTEKO NOTA + a\*M1 + b\*M2

- M1 eta M2 unibertsitatean onartua izateko nota onena ematen duten bi ariketen kalifikazioak dira.
- a eta b ponderazio-parametroak dira, eta 0,1eko edo 0,2ko balioa dute.

### Non matrikulatuko naiz USEan?

Kontsultatu web-orrian: <http://www.unavarra.es/eu/sites/estudios/acceso-y-admision/evau-para-estudiantes/matricula-de-la-evau.html>

### Zer dokumentazio eraman behar dut USEra?

- ❖ NANA eta boligrafo beltza edo urdina.
- ❖ Tippexa erabil daiteke. Ezin da erabili ezabatzen den boligrafikorik.
- ❖ Azterketa egin bitartean eta ikasgelatik atera arte, ikasleek ezin izanen dute ez piztuta ez begi-bistan izan komunikatzeko edo datuak biltegitatzeko balio duen gailu elektronikorik (esate baterako, sakelako telefonoak, ordenagailu pertsonalak, tabletak, erloju adimendunak, etab.). Halako gailuren batek jotzen badu, piztuta dagoela ulertuko da, nahiz eta itzalita egon. Ikasle bakoitzak du arau hori betetzeko ardura, eta, ez badu betetzen, 0 kalifikazioa izanen du azterketa horretan.

- ❖ Nafarroako Unibertsitate Publikoak ez du bere gain hartuko gailu horiek galtzearen edo hondatzearen ardura.

Material gehigarria ematen ahalko dute irakasgai hauetan:

IRAKASGAIAK	MATERIAL GEHIGARRIA
<b>Marrazketa Teknikoa II</b>	Marrazketarako ohiko tresna espezifikoek gain, eskuaira, kartaboia, erregela eta konpasa, eskalimetroa, gorputz geometrikoen ereduak eta kalkulagailua. Arkatzak, gogortasun desberdinekoak.
<b>Diseinua</b>	Diseinua garatzeko beharrezkoa den materiala. Proba arinago bukatzeko, zilegi da koloretako kartulinak eta kontsultarako eredu tipografikoak erabiltzea. Aitzitik, ez da zilegi argazkiak edo tipografiak erabiltzea egindako diseinuari eransteko.
<b>Enpresaren Ekonomia</b>	Erregelak. Kalkulagailuak erabiltzen ahalko dira, betiere programatu ezin badira, pantaila grafikorik ez badute eta aukerarik ematen ez badute ekuazioak egiteko. Kalkulagailuek ez dute aukerarik eman behar datu alfanumerikoak gordetzeko.
<b>Fisika</b>	Erregela. Kalkulagailuak erabiltzen ahalko dira, ezin badira programatu, pantaila grafikorik ez badute, eta ekuazioak edo matrizeekin egindako eragiketak ebazteko eta determinanteen, deribatuen edo integralen kalkulua egiteko balio ez badute. Ez dute ahalmenik izan behar datu alfanumerikorik metatzeko ere.
<b>Geografia</b>	Kalkulagailua erabiltzen ahal da, programagarria ez bada.
<b>Greziera II</b>	Greziera-espainiera hiztegia (erreferentziatzen VOX hiztegiaren edozein edizio hartzen da). Hiztegia erabiltzeko, ikasleek orri-markatzaileak edo post-itak erabiltzeko baimena dute. Zilegi izanen da, halaber, hiztegiak izaten duen gramatikako liburuxka erabiltzea.  Hiztegian berean zilegi izanen da esanahi azpimarratuak edo nabarmenduak edukitzea, baita lexikoari buruzko oharrek ere. Ez da onartuko literaturari, etimologiei edo proban ebaluatzeko beste edozein daturi buruzko ohar idatziak dauzkan hiztegirik; ikasleak iruzurra egiteko asmoa izan duela ulertuko da, eta epaimahaiak erabakiko du horrek zer ondorio dakartza
<b>Latina II</b>	Latineko hiztegia eta dakarren gramatika-eranskina.
<b>Matematikak II</b>	Ezin da erabili ez kalkulagailurik ezta beste gailu elektronikoa edo informatikorik ere.
<b>Gizarte Zientzietako Matematikak II</b>	Kalkulagailuak erabiltzen ahalko dira, betiere programatu ezin badira, pantaila grafikorik ez badute eta aukerarik ematen ez badute ekuazioak edo matrizeekiko eragiketak egiteko eta determinanteak, deribatuak edo integralak kalkulatzeko. Bestetik, ez dute aukerarik eman behar datu alfanumerikoak gordetzeko. (ez dituzte aljebra kalkulua eta/edo kalkulu analitiko aurreratuak egin behar). Baimenduta dago marrazketako oinarritzko materiala, eta koloreak ere bai (baina neurrian), ezabatzen direnak eta gorriak eta berdeak izan ezik.
<b>kimika</b>	Kalkulagailuak, ezin badira programatu.

### Zer gertatzen da ordu tarte berean bi azterketa egin behar badituz?

Baldin eta ikasle batek bi azterketa egin nahi baditu ordu tarte berean, aukera izanen du bata bestearen ondotik egiteko, esleitutako epaimahaiak adierazten dion ordenan. Azterketak egin aurretik, mezu elektronikoko baten bidez jakinaraziko zaio ikasleari zer ordenatan egingen dituen azterketak. 30 minutuko atsedenaldia egiteko aukera izanen du bi azterketen artean, norbaiten zaintzapean betiere, eta tarte horretan ezin izanen du apunterik errepasatu..

## USEko NOTAK

### Nola emanen dizkirate notak?

Notak [web orrialdean daude kontsultagai](#), bai eta USEko txartel elektronikoa deskargatzeari eta erreklamazioak egiteari dagozkien prozedurak ere.

### Badut jarri dizkidaten notak erreklamatzeko aukerarik? Jaisten ahal didate nota?

Eskubidea duzu zure nota erreklamatzeko. Berrikuspen prozesu honetan ateratzen den kalifikazioa hasierako kalifikazioa baino altuagoa, baxuagoa edo berdina izan daiteke. [Kontsultatu webgunea](#).

### Ba al dut zuzendutako azterketa ikusteko eskubiderik?

Bai, kontsultatu [informazioa webgunean](#).

### Noiz arte balio dute USEko notek?

Nahitaezko fasea gainditu izanak iraupen mugagabea du. Aldiz, borondatezko faseko kalifikazioak proba gainditu eta ondorengo bi ikasturteetan izanen dira baliozkoak unibertsitatean sartzeko, betiere ikasleek gainditua badute nahitaezko fasea, lehenagoko hezkuntza-sistemetako proba baliokideren bat edo goi-mailako heziketa-zikloren bat.

## KALIFIKAZIOA HOBETZEA

### USEa gainditu eta berriro aurkezten banaiz, proba osoa egin behar dut berriro?

Kalifikazioa hobetzeko, aukera duzu hurrengo deialdietara aurkezteko: nahitaezko fasera osorik (bestelako Batxilergo modalitate bat hautatzeko aukera egonen da eta egindakoa ez den atzerriko hizkuntza bat), borondatezko fasera edo bi faseetara.

Bakarrik borondatezko fasera aurkezten bazara, hiru irakasgairen azterketa egin dezakezu, Batxilergoan irakasgai horiek eginda izan edo ez: modalitateko enborreko edozein irakasgai orokor (edozein batxilergotakoa), enborreko aukerako edozein irakasgai (edozein batxilergotakoa), eta USEan eskaintzen den hizkuntzetako bakar bat.

Azkeneko deialdian izandako kalifikazioa aurrekoan izandakoa baino altuagoa bada soilik hartuko da kontuan.

### USEa gainditu dut deialdi arruntean, eta deialdi berezira aurkeztuko naiz nota igotzeko

USEa gainditu den ikasturte akademiko horretan, proba deialdi arruntean gainditu dutenek izanen dute ikasten hasteko lehentasuna, nahiz eta nota baxuagoa izan. USEa gainditu eta hurrengo ikasturtetik aurrera lehentasun bera izanen dute haiek eta proba ikasturte horretan bertan gainditu dutenek. Gogoratu ponderatu daitezkeen irakasgaiak bi urtetan bakarrik direla baliodunak: azterketa egiten den urtean eta hurrengoan.

Borondatezko fasea berriz egiten badut, aukera dut lehenbizikoan egin ez nituen beste irakasgai batzuk egiteko?

Beste irakasgai batzuk hautatzen ahal dituzu, berdin irakasgai horiek aurreko deialdietan egin dituzun ala ez.

Aurreko deialdietan nahitaezko fasean egin nuen modalitateko enborreko irakasgaia egiten ahal dut orain borondatezko fasean?

Borondatezko fasera aurkeztu nahi baduzu eta nahitaezko fasea beste deialdi batean egin baduzu, aukera duzu orain borondatezko fasean egiteko lehenbiziko aldian nahitaezko fasean egin zenuen modalitateko enborreko irakasgai orokorra. Izan ere, bi deialdi desberdin dira. Adibidez, aukera hori duzu USEa deialdi arruntean gainditu baduzu eta berriz aurkezten bazara deialdi berezian edo beste urte batean aurkezten bazara. Hala ere, USEaren ponderatu daitekeen zatia hobetzeko bakarrik balio du. Nahitaezko faseko nota hobetzeko, bloke osoa egin behar da.

Era berean, irakasgairen bat USPko nahitaezko fasean gainditu baduzu eta orain irakasgai hori borondatezko fasean egin nahi baduzu, aukera hori ere baduzu, bi deialdi baitira. Hala ere, kasu horretan USEaren ponderatu daitekeen zatia hobetzeko bakarrik balio du. Nahitaezko faseko nota hobetzeko, bloke osoa egin behar da.

Borondatezko fasean Ingelesa irakasgaiaren azterketa egiten ahal dut?

Bai, 2018-19 ikasturtetik, fase orokorrean egin ez duzun hiru hauetako baten azterketa egiten ahal duzu borondatezko fasean: Ingelesa, Frantsesa edo Alemana.

Borondatezko fasera baizik aurkezten ez bazara, nahitaezko fasean egin zenuen hizkuntza bera aukeratzen ahal duzu.

Borondatezko fasera aurkezten banaiz eta joan den urteko borondatezko faseko irakasgai bat gaindituta badaukat, atera nuen nota gordeko didate?

Aurreko ikasturteko borondatezko faseko irakasgairen bat gaindituta badaukazu, nota horrek balio du. Bai joan den urteko nota, baita aurten borondatezko fasean gainditzun irakasgaien notak ere ponderatu daitezke. Gogoratu ponderatu daitezkeen irakasgaiak bi urtetan bakarrik direla baliodunak: egiten diren urtean eta hurrengoan.

 [oficina.informacion@unavarra.es](mailto:oficina.informacion@unavarra.es)

Dokumentu hau soilik informatiboa da eta ez du balio juridikorik.

2023/02/14ean eguneratua.